

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

32. astea (2025eko abuztuaren 4tik 10era)

Gripe-birusaren zirkulazioa epidemia arteko balioetan mantentzen da eta ABSrenak beheranzko joerarekin jarraitzen du. Gora egin du COVID-19 kasuen kopuruak, bai lehen mailako arretan, bai ospitalekoetan. XFG aldaera berria, "Stratus" edo "Frankenstein" izenez ezaguna, atzeman da Covid-19 kasuen artean.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 123,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (147,5/100.000 28. astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasa epidemia arteko balioetan mantentzen da eta bronkiolitisaren tasak beheranzko joera du. COVID-19aren tasak goranzko joerari eutsi dio.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 12 lagin jagoleen % 41,7 baieztatu da. Hiru SARS-CoV-2 detektatu dira eta gripearen birusik ez, eta ABSik ere.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 6,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,0 /100.000 28. astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 217 SARS-CoV-2, 20 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 123,5 kasukoa izan da (147,5 /100.000 28. astean). Lurralde historikoka, tasa 78,7/100.000 izan da Araban, 119,8/100.000 Bizkaian eta 150,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 100.000 biztanleko 1100,9 kasurekin, ondoren 1-4 urte bitarteko taldea kokatzen delarik 289,8 kasurekin.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 51,4 kasukoa izan da (56,7/100.000 28. astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabeko intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan 28. astearekin alderatuta Goierri-Urola Garaiko ESIan izan ezik.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 32. astea	Tasa 28. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	81,6	117,9	0,69 (0,58-0,81)
Arabar Errioxako ESI	238,1	246,6	0,96 (0,57-1,62)
Barakaldo-Sestaoko ESI	107,0	119,7	0,89 (0,70-1,12)
Barrualde-Galdakaoko ESI	123,2	148,1	0,83 (0,72-0,95)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	129,1	166,5	0,77 (0,68-0,87)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	122,4	152,2	0,80 (0,66-0,96)
Uribeko ESI	96,8	114,6	0,84 (0,70-1,01)
Bidasoako ESI	132,1	207,2	0,63 (0,49-0,81)
Debararrenako ESI	142,5	162,1	0,87 (0,67-1,14)
Debagoienako ESI	85,7	115,3	0,74 (0,52-1,05)
Donostialdeako ESI	155,3	159,2	0,97 (0,86-1,09)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	163,3	147,7	1,10 (1,38-0,88)
Tolosaldeako ESI	153,2	190,4	0,80 (0,61-1,04)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,5 kasukoa da 100.000 biztanleko (0,8/100.000 28. astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 39,2 kasutan kokatu da (64,1/100.000 28. astean). COVID-19arenak gora egin du eta 100.000 biztanleko 12,3koa izan da (10,4/100.000 28. astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 12 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 41,7 baieztatu dira. Hiru SARS-CoV-2, errinobirus bat, parainfluenza bat eta adenobirus bat atzeman dira. Ez da gripearen birusa detektatu ezta ABSik ere.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0koa izan da aste honetan (% 8,3 28. astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 25ean kokatu da (% 8,3 28. astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (28. astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 8,3koa izan da (% 16,7 28. astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE


	32. astea		28. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	1	8,3	528	26,6
SARS-CoV-2	3	25	1	8,3	78	3,9
ABS	0	0,0	0	0,0	70	3,5
Metaneumobirus	0	0,0	1	8,3	79	4,0
Parainfluenza	1	8,3	2	16,7	92	4,6
Adenobirus	1	8,3	0	0,0	93	4,7
Errinobirus	1	8,3	2	16,7	342	17,2
Urtaroko CoV	0	0,0	0	0,0	99	5,0
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	49	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 6,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (8,0 /100.000 28. astean), 8,5/100.000 gizonetan eta 5,3/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 36,9 kasu 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen taldean kokatu delarik 19,4 kasurekin 100.000 biztanleko.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,1ekoa izan da 100.000 biztanleko (0,1/100.000 28. astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 28. astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 1,3 kasukoa 100.000 biztanleko (0,9 /100.000 28. astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak % 1,1an kokatu da (% 2,5 28. astean) eta ABSrena % 0,0an. SARS-CoV-2aren positibotasunak gora egin du eta % 23,4ean kokatu da (% 15,2 28. astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	32. astea		28. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	128	23,4	125	15,2	10136	4,8
Influenza	104	1,9	89	1,1	8878	20,0
ABS	95	0,0	83	0,0	8309	9,1

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 217 SARS-CoV-2, 20 gripe-birus eta ABS bat detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 20 gripe-birusetatik, zazpi A motakoak izan dira, hamabi A(H1)pdm09 eta bat A(H3) motakoa. 2024/40 astetik 9367 detekzio erregistratu dira, 7357 (% 78,5) A motakoak eta 2010 (% 21,5) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3723 birusetatik, 2479 (% 66,6) A(H3) eta 1244 (% 33,4) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko abuztuak 13

Zaintza Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza